

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

31. zenbakia

Data 1999-02-17

2593 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK
ALDUNDIA - OGASUNA ETA FINANTZAK
114/99 Foru Agindua, BEZaren aitorten-likidaziorako inprimaki ereduak
aldatzen dituen

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

Otsailaren 8ko 114/1999 Foru Agindua, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorten-likidazioa egiteko 300, 308, 309, 310, 320, 330 eta 370 eredu berriak onartzen dituen otsailaren 1eko 49/1995 Foru Agindua aldatzekoa.

Otsailaren 1eko 49/1995 Foru Aginduari bitartez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorten-likidazioa egiteko 300, 308, 309, 310, 320, 330 eta 370 eredu berriak onartu ziren.

Eredu horietako batzuk aldatu egin dira harrez gero, baina ez da hala gertatu, ordea, esportatzaileen eta beste operadore ekonomiko batzuen hileko aitorten-likidazioa egiteko erabili beharreko 330 ereduarekin.

330 eredu aurkezteko obligazioa abenduaren 31ko 247/1986 Foru Aginduan ezarritakorekin osatzen da, bertan esaten baita esportatzaileen erregistroan inskribaturik daudenek dokumentazio jakin bat aurkeztu beharko dutela eskatutako itzulketen ondorioetarako.

Azken xedapen hori onartu zenetik denbora asko igaro izanak, eta haren argitalpenetik hainbat aldaketa egoteak araudi mailan, komenigarri egiten dute haren edukia eguneratzea eta indarrean dagoen erregulaziora egokitzea. Zilegi jo da, horretarako, egokipena gaur indarrean dagoen 330 eredu onartzen duen foru aginduan egitea dokumentazioa aurkezteko obligazioa arautzen duen artikulua bat gehituz itzulketa eskatzearen ondorioetarako.

Horiek horrela,

EBATZI DUT

Artikulu bakarra.

Otsailaren 1eko 49/1995 Foru Aginduari, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorten-likidazioa egiteko 300, 308, 309, 310, 320, 330 eta 370 eredu berriak onartzekoari, 4. artikulua gehitzen zaio, testu hauxe duela:

«4. artikulua.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko aitorten-laburpena —Esportatzaile eta beste operadore ekonomiko batzuen— egiteko 330 ereduak aurkeztu behar duten subjektu pasiboek ondoko dokumentazio hau erantsi beharko dute itzulketa eskatzen duten bakoitzean:

A) Esportatzaileen eta beste operadore ekonomiko batzuen erregistroan inskribaturik dauden subjektu pasiboek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 30. artikularen 1. eta 2. apartatuetan aipatzen dituen eragiketak egiten dituztenean, honako hauek:

a) Aitortzen eta likidatzen den zergaldian egin diren eragiketen zerrenda, itzulketarako eskubidea ematen dutenean. Esportazioak izan badira, esportazioaren aitorten zenbakia eta balio estatistikoa adieraziko dira, eta Batasunaren barruko entregak izan badira, berriz, bezeroaren BEZarako IFZ eta fakturaren balioa.

b) Esportazio aitorten kopia (DUA), esportazioak izan badira.

c) Salmenta fakturaren kopia, Batasunaren barruko entregak izan badira.

d) Aduanako agiriaren edo nazioarteko garraio gutunaren (CMR) kopia, aduanak bisatua, inportazioei lotutako zerbitzuak badira.

B) Esportatzaileen eta beste operadore ekonomiko batzuen erregistroan inskribaturik dauden subjektu pasiboek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 30. artikularen 4. apartatuan aipatzen dituen eragiketak egiten dituztenean, honako hauek:

a) Luzatutako fakturen liburua.

b) Zergaldi bakoitzean itzulketarako eskubidea ematen duten fakturen kopia.

c) Obra exekuzioengatik luzaturiko fakturak direnean, kobrantzaren frogagiriak ere aurkeztuko dira».

Xedapen indargabetzailea.

Indarrak gabe geratu da abenduaren 31ko 247/1986 foru agindua, BEZaren 331 ereduarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzkoa.

Amaierako xedapenak.

Lehen: Ogasuneko zuzendari nagusiari ahalmena ematen zaio Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko aitorten-likidazioa —Esportatzaile eta beste operadore ekonomiko batzuen— egiteko erabiltzen den 330 ereduari erantsi beharreko dokumentazioa alda dezan.

Bigarrena: Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Donostia, 1999ko otsailaren 9.—Antton Marquet Artola, Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru Diputatua.

(1441) (1474)